



ORENDAINGO ETXEETAN BALDINTZA BERRIAK

«Krisiari aurre egiteko» Orendaingo Udalak eta Kooperatibak aldatu egin dituzte baldintza batzuk, adina, esaterako »7

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Igandea
2009-02-08

VII URTEA 1.624. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Goian, Otsolar dantza taldekoen saioaren une bat. Behean, antzerkiaren irudi bat. N. URBIZU

ANTZERKIA, GIBELA ETA DANTZAREKIN HASI DIRA INAUTERIAK

LIZARTZA Atzo ekin zieten lizartzarrek festei; eguraldi kaxkarra izan arren, giro onak ez zuen hutsik egin herritarren artean s



Ez zen jende gehiegi izan eguraldi txarra dela eta. SINADURA

European igaro da urteko Tolosako lehen azoka berezia.



Gaztetxo ugari hartu zuten parte atzoko krosean. I.T.

Sendi Ekintza elkartearen egun polita igaro dute.

ESKOLA EUSKALDUNA ETA PUBLIKOAK
IKAS KOMUNITATEA



PEDRO M^a OTAÑO HERRI ESKOLA

Pagamuño auzoa, 16 - ☎ 943 6914 78 - ZIZURKIL
Posta elektronikoa: 012041aa@hezkontza.net

Desagertzearen liburua V: Uhartea geldirik



» **Uzturretik**

Koldobika Jauregi

Ez dakit zenbat denbora neramkien lotan, baina begiak ireki nituenean dena zuriz estalita ikusi nuen. Elurra, elurra izango zen, hasieran pentsatu nuen ametsetan nengoela baina ikusirik hankak ere ez nituela sentitzen eta flekilotik zintzilik izotz burruntzia nituela, ez zegoen dudarik negua iritsia zela.

Beti bezala, beno gehixeago

kostata, saiatu nintzen nire buru barruko apaletan zeuden neguarekiko hitzak bilatzen: elurra, txingorra, harria, kazkabarra, jela, izotza, izotz burruntzia izotz beltza, Olentzero igaroa izango zen, oraindik inon ospatzen bazuten ere. Haren ikatz beroaren faltan nengoen.

Nolabait altxa eta bi pauso eman eta gero oharu nintzen uhartea geldirik zegoela, balantza susmorikere ez zegoela, nolazen posible? Zenbat denbora neraman lotan, nire inguruan dena aldatu zegoen, ez zen izango ba hildakoen linboa?

Ez nintzen ba hilda egongo eta nire uhartea, berritua ere penintsulara lotuta?

Espainiar penintsulara lotuta!

Uhartearen itsas ertzean nengoen, aurrerantz dena izozturik,

kristoren izotz plaka zegoelarik, gainera.

Barneratuz joan nintzen, baina ez nuen ezer ikusten, orduan bat batean nire oina azpira begiratu eta hantxe zeuden betiko mamuak bere kanta lelo eraldunarekin.

Akaso gure hizkuntzaren neguan nengoen? Nahikoa izaten da beste alde batera une batez begiratzeta, desastrearen mirakulua gertatzeko.

Olentzero non hago, non hire hizkuntzaren ikatz beroa, non hire kulturaren txondorra?

Esaiguk, piztu dezagun ohitura zaharra, urrundu ditzagun iluntsuneko mamuak.

Egia da batzuetan dena galduta dirudi dela, orain bezala, Iruina Beleian euskararen aztarna zahar batzuk azaldu zirenean bezala,

egiazkoak, gezurrezkoak... Beharrezkoa zen sinestea, baina igaltsu, zeren horretan ere ez zegoen gure etorkizuna.

Ez duzue, ez, kultur suntsitzailerik, espektro madarikatuak nire uhartea geldituko, ez, ez dut nire uhartea utziko atzerritarren itzaleko goroldietan.

Akaso garaia Santa Ageda gogoratzea, hurritza makila hartu eta berriro bueltatu nintzen itsas gaineko izotz plaka hartara, desagertutako mamuen irudiak haren azpian ari ziren milioika pilatzen bere marmarekin... «Habla cristiano».

Oraindik izoztuta ote nago? Herri guztia jelatuta geratu ote al zen garai haietan?

Gure inguruan ba zirudien dena jelatuta zegoela, aspalditik zetozen ohitura biziak...

Denbora luzean iraun zuten.

Garai bateko politika borroka, *Amaya o la patria de los vascos*, afrikarrak ginela, edo eta kaukasiarrak.

Nonbait izoztuta geneuzkan gure benetako sustraiak eta askotan gutariko bat oihuka hasten zenean, beste aldera bueltatu eta ero bat zela, interesik gabeko herritarra esaten zuten.

Ez dago pentsatzerik, ez hemen eta ez ere hemendik kanpo. Eskema itxiegia sortu ditugu, horregatik bakardade hau.

Nahikoa izan nuen makila kolpe pare bat, bata buruko kaskoan eta beste jela gainean, dena urtzeko eta berriro uhartea martxan jarri zedin.

Nahiago nire buru balantza honetan jarraitzea, gizartearen nora ezean galtzea baino.

A **Argazki zaharra**



Lizartzako garai bateko inauteriak irudietan

LIZARTZA • Atzo ekin zieten lizartzarrek aurtengo inauteri jaiei. Urte askotan galduta egon bada ere, lehen ohitura handia zegoen jai hauek ospatzeko herri honetan. Goiko irudietan argi ikus dezakegu hori, gainera. Ezkerrean, *Lizartzako dantzariak eta zaldidunak* deiturikoak

agertzen dira, 1928. urteko inauterietan. Eskuinean, berriz, 1934ko irudia daukagu: «Atteko-neko Joxe Inaxio alkate izan zen, 1934 inauterietan». Hori irakur dezakegu, 1995eko inauterietako egitarauan argitaraturiko argazkiaren oinean. **HITZA**

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



Kolare biziko zuhaixka eta landareak ikus zitezkeen atzo goizean, Triangulo plazan. E. EZEIZA



Zuhaixken artean, besteak beste, limoiondoak. E. EZEIZA



Udaberriari begira, lorategiak apaintzeko aukera. E. EZEIZA



Euria eta hotza egin zuen atzo goizetik, ondorioz, espero baino jende gutxiago hurbildu zen azokara. E. EZEIZA

Bataiatua urteko lehen azoka berezia

Ekonomia » Euripear eta hotz handiarekin ospatu zen atzo XVI. Zuhaitz Eguna; jende gutxi hurbildu zen goizean zehar Triangulo plazara.

ESTI EZEIZA

Euripear ospatu zen atzo urteko lehendabiziko azoka berezia. Eguraldiaren gizonak begiz jota da Zuhaitzaren Eguna, azken urteetan gertatu den bezala, aurtengoan ere hotza eta euriak kolorea kendu baitio azokari.

Triangulo plaza zuhaitz, zuhaixka eta bestelako landarez beteta esnatu zen atzo. Hamabost mintegik hartuko zutela parte aurreikusten zen, baina eguraldi txarra medio, izan zen etorri ez zenik. Beste batzuk berriz, elurra kentzeko makinaren atzetik etorri behar izan zuten. Fruta arbolak, baso landareak, landare usaingarriak... aurkitu zitezkeen. Hala ere, saltzaileak penatuta zeuden eguraldiarekin, jende gutxi hurbildu baitzen azokara. Eta gerturatuta ere, ez ziren landareak erostera ausartzen.

Egun hau landare eta zuhaitz mota ugari ikusi eta erosteko aproposa izateaz gain, haiei buruzko zehaztasunak galdetzeko ere egokia da. Izan ere, gustura erantzuten diete mintegietako arduradunek bertaratuakoen kezka eta galderak. Baina atzo, saltzaileek behin eta berriz aipatu zuten bisitari eta erosle falta. Saltzaileetako batzuk honela ziorten, «ia urtero gertatzen zaigu gauza bera, azkarregi egiten da azoka hau, data hauetan ez da harritzekoa eguraldi txarra egitea. Horregatik, bi edo hiru astez atzeratu beharko litzateke Tolosako Zuhaitzaren Eguna. Ziurtasun handiagoa izan dezagun». Gaineratu zuen batek ere, «urrutitik etortzen gara, traste guztiak gainean hartuta, postua ordaintzen dugu, eta gero, salmentarik ez baldin badago, galerak egiten ditugu».

» PARTE-HARTZAILEAK

- **Abaro.** Zaldibar.
- **Agirretxe.** Donostia.
- **Arakama anaiak.** Zegama.
- **Aranburu.** Aginaga.
- **Areitio.** Zaldibar.
- **Belar.** Zaldibar.
- **Blasenea.** Zarautz.
- **Chavarri.** Alfaro.
- **Dorronsoro.** Ataun.
- **El montañes.** Tafalla.
- **Guillen.** Pueyo.
- **Jaizkibel Haztegia.** Lezo.
- **Magalarte.** Zamudio.
- **Urkizu.** Anoeta.
- **Victor Lasay otra CB.** Albiztur.

Aipatzekoa da, aurtengoan, lehenengo aldiz, mintegi ekologiko bat izango zela. Zarautzik etorria, Blasenea, eta batez ere fruitu txikien zuhaixkek ekarri zituen: mugurdiak, ahabiak, arakatzak, andere mahatsak, masusta zuhaixkak... Baratzeko landare ekologikoetan espezializatua egon arren, zuhaitz eta zuhaixkekin ere lanean hasi dira, eta atzo produktu hauek ikusteko, eta nola ez, erosteko aukera ona zen.

Hurrengoa, biga enkantea

Hurrengo azoka berezia martxoaren 21ean ospatuko da. Orduan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Tolosako Udalak antolatuta VII. Biga Enkantea egingo da Ferialekuan.

Gipuzkoa mailan Tolosako udazkeneko eta udaberriko enkanteak garrantzitsuak dira. Jende ugari hurbiltzen da egun horretan inguruko ganadua ikustera. Bestalde, 100 buru inguru ateratzen dira salmentara, enkante bidez.

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA
ERDIBAI ERDIBAI BATLARRAKO IKASTOLA
 Kalitatezko hezkuntza euskalduna eta eleanitz
 Teknologia berriak eguneroko lanean
 Goiz-Txoko eta Jangela zerbitzuak
ETORKIZUNA ERETUEN, FAMILIEN ZERBITZURA
 www.jesusenbihotzaikastola.com


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
 KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Antzerkiak, gibel pintxoek eta Otsolar dantza taldeak ongiatorria egin diete inauteriei

Lizartza » Denek ere saio bikaina eskaini zuten; azpimarratzekoa da dantzariak prestatutako eta landutako emanaldia.

NEREA URBIZU

Lizartzako inauteriek ezin zuten hasiera hobeagoa izan, eguraldi kaxkarrarengatik ez balitz. 12:00etan frontoian herritarrek bildu eta bertan Otsolar dantza taldearen emanaldia ikusi ahal izan zuten, antzerkiaren gain. Dantzak ikusi bitartean, txekor-gibela ere dastatu zuten ikusleek. Normalean jai hau plazan egiten dute, baina elur bustiak eta hotzak beste aukerarik ez zuten eman.

«Txapela buruan eta ibili munduan esaten da: gure herrian gure eskubideak zapaltzen dituzte, buru gabe. Baina zorionez baditugu txapelak gure herrian; Nagore Arozena eta Mikel Olaetxea». Preso daudenak ere gogoratu zituzten inauterietan.

Lizartzako familiaren batek krisiari nola egiten dion aurre ikusi ahal izan zen antzerkian: babarrunak astean hirutan jatez nazkatuta zegoen semea, baina tira... Odolkiak ere jaten zituzten nahi baino gehiagotan ere, baina ederki zeuden. Txekor dotore bat ekarri zuten frontoira, baina «ez zen Tolosako txuletoia!».

Lizartzako familiaren parean garai bateko udaletxea osatzen zutenak zeuden, «honetan behintzat dena emakumez osatuta», zioten aktoreek.

Otsolarren pausoak (dotore)


Dantzarien saioa dotoretzen herriko hainbat musikari aritu ziren: biolina, gitarra, baxua, txistu, perkusioa, akordeoia, armonika, aho-tsa, xirula... Lau ataletan banatuta egin zuten Otsolar dantza taldekoek saioa, eta hau ere, dotore. Lan handia egin dutela erakutsi zuten neska-mutulek. Adinka antolatuta batzuetan, bestetan denak nahastuta... Era askotara ibili ziren eta dantza mota asko eginaz, ardatza beti ere euskal dantzak izanik.

Hauen saioa egiteko Villabonako Oinkari dantza taldearen laguntza izan zuten eta eskertu ere, eskertu zuten, izan ere, materiala utzi diete. Ezin eskertu gabe utzi musikarrien lana ere, hauen laguntza ere ezinbestekoa izan baitzen. Gurasoen pazientzia ere gogoratu zuten Otsolar dantza taldeko ordezkariek.

Banakoia, Orpo-Punta, Orioko balea, Sorgin dantza, Gipuzkoako eta Baztango zortzikoa, Agintari... eskeini zituzten dantzariak. Bitartean, txekor-gibel pintxoak banatu zituzten jendartean, ohi bezala. Típula, ogia eta haragia zeramaten. Jendeak eskertu zuen mokadutxoak.



Udala osatzen zuten emakumeak, gibel-pintxoak jaten. N. URBIZU



Musikariak paper garrantzitsua bete zuten, dantzariei lagunduz. N. U.

» DATOZEN EGUNETAKO EGITARAUA

Otsailak 13, ostirala

- **14:15.** Eskolak antolatuta, mozerro festa.
- **Ondoren.** Kalejira.

Otsailak 14, larunbata

- **07:00.** Plazan elkartu eta kalejira dantzar, txantxo eta txistulariekin.
- **07:30.** Puske-biltzea: dantzariak eta txantxoak elkarrekin ospeletik.
- **09:30.** Etxe-zahar baserrian geldialdia gosaltzeko.
- **12:00.** Mozorro, gudi eta txarangen irteera Errota ataritik.
- **13:30.** Ihautei partaide guzitik kalejira, arrateko zubitik irtenda.
- **Ondoren.** Denok elkarrekin bazkaria frontoian.
- **18:00.** Gudi eta mozerroak Joxe Mariko aparkalekuan bilduko


dira kalejiran plazara jeisteko. Lizartzako talogileen taloak eta sagardoa izango dira. Bonberenea txaranga izango da.

Otsailak 15, igandea

- **11:00.** Agintari eta dantzariak Meza Nagusira, txistulariekin batera, *Agintari doinuaz* joaz.
- **12:00.** Dantzariak kalean puska biltzen, gudi, mozerro eta gainerakoekin.
- **13:00.** Lizartzako Ihaute Dantzak plazan.
- **14:00.** Ihautei bazkaria frontoian.
- **Ondoren.** Txaranga, dultzainero, jokuak, sariak...
- **20:30.** Plazan ijitoa erreta, Ihauteien amaiera iragarritz.



Antzerkiaren ondoren, Otsolar dantza taldearen saioa izan zen, adin guztietakoak. Irudian, txiki-txikiaren dantzetako batean. N. U.



Txekorria ekarri zuten antzerki garaian. N. U.

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Telefona: 943651063
Webgunea: www.samaniego-tolosa.com
Posta elektronikoa: 012244aa@hezuntza.net

• HAUR HEZKUNTZA (2 URTEK HASITA)
• LEHEN HEZKUNTZA

01:30etik aurrera
Haur txakoa

Telefona: 943651387
Webgunea: www.orixe.net
Posta elektronikoa: 012980aa@hezuntza.net

• DERRIGORREZKO BIGARRIN HEZKUNTZA
• ZEREGINEN IKASKUNTZAKO GELA
• LAN HASTAPEN EGOKITUA
• BATXILERGOAK

D EREdua - KALITATEZKO IRAKASKUNTZA
MATRIKULA EPEA: OTSAILAREN 2tik 13ra

VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA

JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA



Fleming Ikastetxea.
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 1413
012277aa@hezuntza.net

Matrikulazio epea:
Otsailaren 2tik 13ra



Erriobea Ikastetxea.
Derrigorrezko Bigarren hezkuntza
Arratzainen (12-16 urte)
Tel.-faxes: 943 69 37 33
012952aa@hezuntza.net



Iurreamendiko langileak protestan

TOLOSA ■ Iurreamendi egoitzako zenbait langile kalera atera ziren atzo, egun dituzten lan baldintza «kaxkarrak» salatzeke. Kategoria berdinetan soldata-eskala bikoitza jasaten dutela adierazi dute Zu eta Biok en-

presa azpikontratutakoek. Izan ere, «nahiz eta egoitzako beste langileen lan berdina egin», gutxiago kobratzen dutela diote. Hori dela eta negoziaketa prozesua hasteko eskatzen diote Zuzendaritzari. E.E

Olaberriak laugarren urrea lortu du Mallorcan

Ikaztegieta ■ Atzo goizean scratch proban lehiatu zen eta beste behin ere, garaipena erdietsi zuen.

Bestalde, Ainhoa Pagola tolosarra eta Ana Usabiaga ordiziarrak taldekako abiadura proban ere urrea lortu zuten.

Atzo arratsaldean, eta HITZAKO erredakzioa itxita zegoela, eskualdeko txirrindulariak oraindik probak egiten ari ziren, final batzuk, hain zuzen ere. Olaberriak beste bi domina jaso ditzake, keirin probakoa eta jazarpenekoa banaka.

ERREDAKZIOA

Mallorcan jokatzeko ari diren Espainiako Pista Txirrindularitza Txapelketan Leire Olaberria ikaztegietak laugarren urrea lortu zuen atzo. Hain zuzen ere, scratch proba jokatu dute, eta bertan garaipena eskuratu du. Atzokoarekin laugarren urrea da, izan ere, herenegun, Leire Olaberriak eta Ana Usabiagak taldeka jazarpenean urrea eskuratu zuten. Puntuazioan beste garaipen bat eskuratu zuen Olaberriak, bigarren urrea jantzi zuelarik.



Olaberria, Mallorcan. HITZA

Ibarra ■ Sendi Ekintzako Elkartearen egunean goizean eguraldi txarra oztzua izan zen; krosetan ez zen ordea, hori nabaritu.

Goizeko giroa baino, arratsaldekoa izan da polita, krosaren garaian

N. URBIZU

Ibarrako Sendi Ekintzako Elkartearen eguna atzo ospatu zuten eta bertan, eta eguraldia egia esan, oztzua izan zen goizean behintzat. Arratsaldean, berriz, giroa ezin hobea izan zen, neska-mutilen parte-hartze bikainarekin.

Goizean toka txapelketa eta haurrentzako betiko jolasak izan ziren (zaku karrera...). Txapak egiteko tailerra izan zituzten eta baita aurpegia margotzekoa ere. Arratsaldean, krosa izan zen erregina, parte-hartze handiarekin.

Lau maila desberdinetan banatuta zeuden korrikalari gazteak, eta zaharrenak 1995. urtean jaiotakoak izan ziren; gazteenak, 2001ekoak, hain zuzen. Kazkabarrapean egonda ere, aritu ziren.



Arrakastatsua izan zen arratsaldeko krosa. Goizean, zaku karreratan ere jendea animatu zen. E. EZEIZA



Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Intza.** Herriko plazan, 300 urteko etxea garajearekin bertako eran sendotuz eraberritu eta estreinatuzkoa, modu onean salgai, ezinduentzako egokitua, Aralarko magalean landetxea jartzeko aukerakoa. Harremanetarako telefonoak: 628 03 07 27, 646 1114 85 eta 609 2183 41.

estanga@wanadoo.es.

■ **Ukendua.** Fistula edota erredura arazoak, zuriuja gabe. Dena naturala. Deitu konpromezu gabe ondorengo telefonora: 618 62 83 11.

garitxu70@hotmail.com

LANA

■ **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromezurik gabe. Irene: 695 70 82 71 edo 638 94 46 04.

■ **Zaintzailea.** Neska edo emakume euskalduna behar dugu, Villabona aldean haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Kotxea beharrezkoa da. 678 87 50 81.

Mus txapelketa abian da

Anoeta ■ Euskal Herrian Euskarazek antolatutako Mus Txapelketako kanporaketa jokatu da gaur, Kuku elkartean.

ERREDAKZIO

Bai Euskal Herriari ekimenak antolatuta, mus txapelketa jokatu da Anoetako Kuku elkartean. Norgehiagoka 15:30ean hasiko da.

Bai Euskal Herriari Euskal herri mailako txapelketa antolatu du. Hori dela eta, lehendabizi, herrietako kanporaketak burutuko dira. beraz, Anoetan irabazten dutenak Euskal Herriko Txapelketan aurrrera egingo dute.

Izen-ematea bikoteko 20 euro ordaindu beharko da. Bestalde, Anoetako irabazleentzat ardo botila eta txuleta pare bat izango da, eta bigarren geratzen direnentzat, oialasko bat. Gainera, parte-hartzaile

guztiak ardo botila bat eramango dute etxera. Euskal Herriko txapelketa irabazten dutenek berriz, 3.000 euroko saria izango dute. Baita, astebeteko bidaia paregabea ere.

Honenbestez, gaur Anoetan irabazten duen bikotea Seguran jokatuko den hurrengo Gipuzkoako kanporaketan ariko da. Beraz, bihar Anoetan hasiko bada ere lehia, hurrengo asteetan, beste txoko askotara ere zabalduko da.

«Etxe berrietan izena emateko baldintza berri bat adina izango da»

Orendain » Kooperatibak eta Udalak baldintza batzuk aldatu dituzte etxea erosteko garaian, krisiari hein batean aurre egiteko.

NEREA URBIZU

Orendainen etxebizitza tasatu berriak egiteko lehen pausoak duela urtebete inguru hasi ziren: hauek egiteko garaian etxe kooperatiba osatu zuten joan den ekainean: Jauregi Alde S. Coop. Bada, Jauregi Alde kooperatibak eta Orendaingo Udalak bigarren deialdi bat egitea adostu dute krisiari nolabait aurre egiteko. «Orain, etxebizitza hauetako bat erosi nahi duenak edozein adin izan dezake, ez da gaztea izan beharrik, nahiz eta lehenetasuna gazteek izaten jarraitu».

Bertako gazteak izatea

Hori bai; etxebizitza erosten duenak bete behar duen baldintza ohiko bizilekua, lehenengo bizilekua Orendain izatea da. «Nahiz eta bi bizitza eduki, baina Orendain izan behar da lehenengo bizitza».

«Gure asmoa, Orendaingo biztanleak proiektu honetan parte hartzeaz gain, Tolosaldeko eta Goierri aldeko gazteei aukera hau luzatzea da. Honela inguruko gazteek aukera izango dute Orendain bere egoitza ezartzeko prezio duin batean».

Deialdi honetarako, baldintza berriak adostu dituzte eta jende gehiagori parte hartzeko aukera emateko bi talde osatu dituzte. Lehenengo taldearen baldintzak hauek dira: alde batetik, jabegoan etxebizitzarik ez edukitzea, edo, edukiz gero, hura saltzeko konpromisoa hartzea.



Printzipioz, momentuz, bi bloke egingo dituzte: bakoitzean zazpi etxebizitza izango dira. HITZA

Bigarren taldearen baldintzak hauek izango lirateke: etxebizitza esleipenaren ohiko egoitza izatea behintzat 15 urtetan (eskrituratzetan den unetik kontuan izanda).

Deialdi honetan izena emateko daukagun epea hilaren 10etik (asteartea) 24ra arte izango litzateke eta izen-emate hori Arrasate Inbertsioak eta Zerbitzuak, SAn egin beharko da. Horretarako 902 117 017 telefono zenbakia edo helbide elektronikoa honetara mezu bat bidalita egin daiteke: arrasate@inmoarrasate.com edo Orendaingo udaletxera deituta (943 65 40 64).

Hasierako prezioak

Hasiera batean, hiru bloke egin behar zituzten, baina orain egoera aldatuta, bi egingo dituzte, bakoitzak zazpi etxebizitza izanik (goiko solairuan handi bat, alderik aldera,

bloke bakoitzean). Prezioa mantendu egingo da, hau da; 92 metro karratukoa 38 milioi pezeta ingurukoa izango da («ez da ailegatzen»). Honen baitan, garajea, trastelekua, sukaldeja jarrita eta BEZA daude. Gero eta metro gehiago, noski, diru gehiago ordaindu behar da.

Pisuak handiak dira, «izan ere, herri horietan jendeak hori eskatzen du». 92 metro karratu erabilgarriak eta denak aurrealdea eta atzealdea dituztenak dira. «Beraz, denak orientazio berdinekoak, ez batzuk itzalean eta besteak eguzkitan».

3-4 kooperatibistaren beharra

Etxebizitzaren lehenengo fasea osatzeko kooperatibak 3-4 kooperatibista gehiago behar ditu. «Kooperatiba izatearekin», dio Tomas Plazaola Orendaingo alkateak,

«etxebizitza zeure erara egiteko aukera ematen du honek, norbere aldetik egingo balu bezala». Kudeaketaz eta bitartekaritzaz, berriz, Arrasate inmobiliaria arduratzen da.

Garai honetan obrarekin hasiz gero, «2011ren urte hasierarako giltzak entregatuko lirateke».

Krisi garaian gaude; horrek zuzenean, noski, eraikuntzan eragin du. «Momenturik txarrean gertatu zaigu hau, eta banketxeek otopoak jartzen dituzte. Hasiera batean, duela bizona hiru hilabete kreditua eskatzera joan ginenean geure baldintzak baliagarriak ziren: orain banketxeak jartzen dizkigun baldintzak zorrotz egin dituzte eta horregatik ezin dugu obra hasi». Hori da beste 3-4 errole-kooperatibisten behararen arrazoia.

Arrospide eta Azurmendi bikoteak finalerako txartela lortu du

Aizkora » Urrezko Aizkolari Txapelketan, Rekondo eta Harria V.a izan zituzten aurkari atzo, Uharte Arakilen.

ERREDAKZIOA

Arrospide aizkolariak Urrezko Aizkolari Txapelketan aurrera egin du, honela finalerako txartela eskuratuz. Alde handia atera zien atzean gelditu zirenei. Arrospide eta Azurmendi, Rekondo eta Harria V.aren aurka aritu ziren atzo arratsaldean Uharte Arakilen. Ongi aritu ziren leaburuarra eta bere bikotea, hala, joan den asteburuan Nazabalek-eta egin zuten denbora hobetzea lortu zuten. Lehia hasterako aizkolari betearnoak ziren favoritu, eta aurreikuspenak betetzea lortu zuten.

Atzoko norgehiagokaren ostean, Larretxea eta Atutxaren aurka aritu beharko dute finalean, Arrospide eta Azurmendik.

Gazteen mailan ere beste bi eskualdeko aritu ziren lehian: Ruben Saralegi eta Arkaitz Olanon hain zuzen ere. Hauek Larretxea lehengusua izan zituzten aurkari Uharte Arakilen jokatuako norgehiagokan. Hemen ere, eskualdekoak izan ziren garaile.

Laburrak

Jasotako diruarekin Elordi parkea txukunduko dute

ALTZO » Altzoko Udalak Espainiako Gobernuak ematen ari den diru laguntzen erantzuna jaso zuen herenegun. Eskara Elordi parkea hobetzeko egin zuen Altzok eta hala egingo dute: Elordi parkeko hobekuntza, hain zuzen. Honen egokitzapenerako erabiliko dute 29.442 euro. Dena dela, guztira 67.079 euroko diru laguntza dagokio Altzori.

Altzarien berreskurapena eta dekorazio ikastaroa

ALEGIA » Alegian, Kutxa Aulak-en bidez, altzarien berreskurapena eta dekorazioa ikastaroan izena emateko aukera dago oraindik. Momentuz 4 lagunek eman dute izena baina kursoa egin ahal izateko 10 lagun behar dira. Ikastaroa ostiralean izango litzateke, 15:00etatik 17:00etara. Bestalde, pilates lehenengo mailako ikastaroari hasiera eman diete. Asteartean elkartzen dira 18:00etatik 19:30era bitarte. Informazio gehiagora nahi izanez gero, Alegiako Kultur Etxera dei daiteke (943 65 46 98).



Ilegalizazio prozesua gaitzetsi dute

TOLOSA » Atzo iluntzean, ezker abertzaleak deituta, manifestazio bat egin zuten Tolosan, Triangulo plazatik abiatuta. Bertan, «ezker abertzaleak bizi duen salbuespen egoera» salatu zuten. *Salbuespen egoerari stop. D3M* leloa erabili zuten. Honekin, martxoaren 1eko hauteskundeetara begira Askatasunaren eta D3Mren aurka ematen ari diren ilegalizazio prozesuak gaitzetsi zituzten. Triangulotik abiatuta Alde Zaharrean barrena joan ziren. Auzitegi gorenak gaur erabakiko du D3M plataforma eta Askatasuna alderdia baliogabetu edo ez. ESTI EZBZA



4°
3°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	14°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralea: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altxo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Tolosa.** Musika Bandaren Inauteri saioa lurreamendin, 12:00etan.
- **Villabona.** *Handitan* antzezlan, 17:00etan, Gurean.

Zinema

- **Tolosa.** Leidor, gaur: 17:00etan, *Perez sagutxo* 2; 19:30ean, *Una familia con clase*; 22:00etan, *My blueberry nights*. Bihar: 20:30ean, *My blueberry nights*.
- **Villabona.** Gurea, gaur: 19:30ean, *La Ola*. Bihar: 21:30ean, *La ola*.
- **Leitza.** Gaur, 19:30ean, *Las horas*.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur:

- **Ibarra.** Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
 - **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.
 - **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 112.
- Bihar:**
- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. 943 65 10 40.
 - **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.



Txindokira igotzea baino errazago...

ABALTZISKETA • Atzo arratsaldean Abaltzisketako udaletxean Xabier Lasa eta Jon Zubizarreta, Iñaki Gorostidi eta Mikel Senperenaren arteko apustua sinatu zuten: bi aldekoek adostu zuten eta aldaketarik ez zen izan. Txindokira nor lehenago iritsi da egin beharreko proba, ekainaren 28an. Ordua ere zehaztu dute, 11:00etan, hain zuzen ere. Hirukoteko baten batek lesiorik izanez gero, ordezko bat izateko eskubidea izango dute baina herri-tarra beharko du izan horrek. Aldiz, Lasa lesionatzen bada, bertan behera geldituko litzateke apustua. Zero kilometroa dagoen leku-tik abiatuko dira. Gogoratu, hirukoteak, bide osoa hiruen artean egin beharko dutela, bakoitzak zati bat egin: korrikalari aldaketa egingo den lekuetan jendea egin beharko da, «kontrolatzeko, eta iruzurrik egon ez dadin». Atzo 1.000 euroak jarri zituzten apustuariek eta festa batzordeko bi kidek gordeko dute, egun hura iritsi arte. Nahi izanez gero, enkantean ere parte har daiteke, herriko edozein tabernara joanda. NEREAURBIZU

A Agurrak



Zorionak!
Oihan Lopetegi Etxedona (Tolosa).

Gaur urte bat. Zorionak eta muxu asko etxekoan partetik.

agurrak

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak
jaioberrak - jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa



- 2 urteko gela. Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

MATRIKULA EPEA:
Otsailaren 2tik 13ra

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net



Plaza Etxeberri jatetxea
Pedro Mari Otaño Plaza Zizurkil

Aste bururako menu bereziak dauzkagu!!!
Dasta itzazu gure babarrunak osagai guzietekin!!!

943 69 19 36

Lagunare edo famili baxkari eta alarde, egiteko leku aproposa da gure etxea

Irurako Ikastola

• (2-12 URTE)
• Lehen Hezkuntza

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'

San Migel, 5 • 20271 IRURUA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net